



## ERANSKINA

### ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK EGITEKO EREDU PARTE-HARTZAILEAREN GIDA PRAKTIKOA

#### 1.- GIDA AURKEZTEA

#### 2.- ARABAKO AURREKONTU PARTE-HARTZAILEEN XEDEA ETA HELBURUA

#### 3.- AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAREN FASEAK

##### 3.1. 1. FASEA: PLANGINTZA ETA ZABALKUNDEA

- a) Beharrezko aurrekontu partida zehaztea
- b) Egutegia egitea
- c) Zabalkundea eta komunikazioa

##### 3.2. 2. FASEA: HERRITARREN PROPOSAMENAK JASOTZEA

- a) Parte hartzeko baldintzak
- b) Proposamenei buruzko baldintzak
- c) Hautatze irizpideak
- d) Proposamenak aurkezteko bideak
  - 1) Bide elektronikoa
  - 2) Bide presentziala

##### 3.3. 3. FASEA: HERRITARREN PROPOSAMENEN AZTERKETA

- a) Proposamenak egiaztatzea eta iragaztea
- b) Aukera daitezkeen proposamenen zerrenda egitea
- c) Hautatze irizpideak
- d) Aukera daitezkeen proposamenak argitaratzea

##### 3.4. 4. FASEA: PROPOSAMENAK HAUTATZEA. HERRITARREN BOZKETA.

- a) Proposamen bakoitzaren publikotasuna
- b) Herritarren bozketan parte hartzeko baldintzak
- c) Bozketak egitea
  - 1) Bide elektronikoa
  - 2) Bide presentziala

##### 3.5. 5. FASEA: BOZKETAREN AZKEN EMAITZAK ETA JARRAIPENA

- a) Bozketaren azken emaitzak
- b) Gutxieneko quoruma
- c) Gauzatzeko gerora sortutako ezintasuna

##### 3.6. 6. FASEA: HERRITARREI ITZULTZEKO PROZESUA

##### 3.7. 7. FASEA: EBALUAZIOA ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK





## 1.- GIDA AURKEZTEA

Gida praktikoa honen helburua da Arabako aurrekontu parte-hartzaileen oinarriak eta alderdirik garrantzitsuenak modu labur eta errazean azaltzea. Demokrazia parte-hartzaileko tresna da, zuzeneko eta eztabaidazkoa, eta, horri esker, herritarrek parte har dezakete politika publikoen diseinuan, erabakian, betearazpenean eta jarraipenean.

Gidak prozedurazko gaiak jasotzen ditu, hala nola proposamenak nola eta non aurkeztu, nolako proposamenak onartuko diren eta zeintzuk geratuko diren kanpoan eta zergatik, baita proposamenak aurkezteko edo bozkatzeko eskatzen diren betekizunei buruzko beste alderdi batzuk ere, prozesuaren faseen azalpen labur batez gain.

## 2.- ARABAKO AURREKONTU PARTE-HARTZAILEEN XEDEA ETA HELBURUA

Arabako aurrekontu parte-hartzaileen helburua da, batetik, lurraldeak eta bertako kuadrillek dituzten beharrak eta lehentasunak zehazterakoan arabarrek **zuzenean parte hartzea**, eta, bestetik, foru aldundiaren urteko aurrekontuan **gizartearen babes handiena duten beharrak sartzea eta lortutako konpromisoen jarraipena** egitea.

Gainera, **hausnarketa aktiboa eta elkartasuna sustatzen** laguntzen dute. Izan ere, lurraldeko kuadrilletako udalerriren batean errolatuta dauden 16 urtetik gorako arabar guztiek aukera izango dute behar kolektiboetan sakontzeko eta gainerako herritarrek planteatzen dituzten arazoak eta eskaerak ezagutzeko.

Hori dela eta, tresna hori ez da soilik partaidetzako berrikuntza tresna bat, baizik eta herritarrak lurraldean gertatzen denaren behatzaile huts izatetik **protagonista aktibo** izatera igarotzeko gunea; kudeaketa publikorako funtsezko pieza da.

Gainera, aurrekontu parte-hartzaileek, “zertan gastatzen ditu administrazioak gure zergak?” galderari erantzuteko kontuak ematearen oinarri nagusia ardatz hartuta, **kudeaketaren gardentasunerako dinamika aktibo** gisa jarduten dute.



Prozesua irekita egongo da Arabako Lurralde Historikoko bizilagunek proposamenak aurkezteko, eta 7 fasetan banatuta egongo da:

- 1. fasea: Plangintza eta zabalkundea.
- 2. fasea: Herritarren proposamenak jasotzea
- 3. fasea: Herritarren proposamenen azterketa
- 4. fasea: Proposamenak hautatzea eta herritarren bozketa
- 5. fasea: Bozketaren azken emaitzak eta jarraipena
- 6. fasea: Herritarrei itzultzeko prozesua
- 7. fasea: Ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak



### 3.- AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAREN FASEAK

#### 3.1. 1. FASEA: PLANGINTZA ETA ZABALKUNDEA

Lehen fasea funtsezkoa da aurrekontu parte-hartzailearen zikloan; batez ere, aurrekontu parte-hartzaileak gauzatzeko **beharrezkoa den partida zehaztean**, prozesuan jarraituko den **egutegia finkatzean** eta **prozesu parte-hartzailea zabaldu eta jakinaraztean** datza, prozesu horren berri emateko eta herritarrak parte hartzera animatzeko.

##### a) Beharrezko aurrekontu partida zehaztea

Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuetan urtero aurreikusiko da zein zenbateko bideratuko den Arabako aurrekontu parte-hartzaileen prozesura.

Ekitaldi bakoitzerako, diru sarreren aurrekontu osoaren eta Arabako Foru Aldundiarenak ez diren gastuen arteko proposamen aritmetikotik ateratzen den **aurrekontu propioaren % 0,45** esleituko da. Hori foru aurrekontuak behin betiko onestearen mende egongo da, **I. eranskinean** jasotzen den bezala.

Prozesuan hautatutako proiektuak gauzatzeko aurreikusitako gastuen partida, azkenean, proposamen bakoitza egiteko eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailari esleituko zaio.

Aurreikusitako gastu partida **6 zenbateko berdinetan banatuko da, bat kuadrilla bakoitzeko (Gasteiz izan ezik).**

Kuadrillaren batean ez badago prozesu parte-hartzailean sartzen den proiekturik, kuadrilla horri dagokion zenbateko ekonomikoa zuzkidura osagarri gisa banatuko da, beste kuadrilletako gainerako proiektuen proportzioan.

##### b) Egutegia egitea.

Prozesuaren faseak gauzatzeko denborak errespetatuko dituen egutegia diseinatzeko ahalegin berezia egingo da. Horretarako, urtero, **Berdintasun, Euskara eta Gobernanzako diputatuaren foru agindu** bidez, egutegi bat onetsiko da, eta horrek fase bakoitzari dagozkion datak eta epeak jasoko ditu. **Egutegi hori Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da.**



**c) Zabalkundea eta komunikazioa.**

Gida praktikoa hau eta urtero onesten den egutegia **Gobernu Irekiaren Atariaren** bidez egongo dira eskuragarri herritarrentzat.

Web atari horretan ez ezik, prozesua urtero adosten diren beste kanal batzuen bidez iragarri eta zabalduko da. Kanal horien artean honako hauek egon daitezke: prentsako iragarkiak, irratiko iragarkiak, liburuxkak eta kartelak, sare sozialetarako euskarriak, web orrietako bannerrak, etab.

### **3.2. 2. FASEA: HERRITARREN PROPOSAMENAK JASOTZEA**

Bigarren fasean, parte-hartzaileek egindako proposamenak jasoko dira.

**a) Parte hartzeko baldintzak**

Parte-hartzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

**1) Pertsona fisikoak:**

- 16 urte edo gehiago izatea
- Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea.

Elkarteek edo taldeek baldintza hauetakoren bat bete beharko dute:

**2) Nortasun juridikoa duten erakundeak (elkarteak edo kolektiboak):**

- Arabako Lurralde Historikoan eratuta egotea edo
- Araba izatea lan eremutat.

Kasu horretan, erakundea ordezkatzen duen eskatzaileak Arabako Lurralde Historikoko edozein udalerritan erroldatuta egon beharko du, eta 16 urte edo gehiago izan beharko ditu.



## b) Proposamenei buruzko baldintzak

Proposamenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Arabako Lurralde Historikoko kuadrilletan eta horietarako proiektuak planteatzea (**Gasteizko Kuadrilla izan ezik, ez baita onuraduna**).
- **Garrantzitsuak, interes orokorrekoak eta onura publikokoak izatea (onuradun ez den Vitoria- Gasteizko kuadrilla izan ezik)**.
- Legezko egitatea izatea eta **ez izatea difamatzailea edo diskriminatzailea**.
- **Arabako Foru Aldundiaren eskumeneko** edozein jarduketa eremuri lotuta egotea, edo, dagokion akordioaren bidez, proposamenaren xedeaz arduratzen den Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak aukera ematea foru aldundiari prozesu parte-hartzailearen amaierako proiektu gisa hautatutako jarduketa gauzatzeko.
- **Zehatzak** izatea, proiektuaren **xedea eta helburua** argi utzita.
- **Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa** bermatzea, eta Arabako foru administrazioak edo haren foru-sektore publikoak alde aurretik **garatutako ekimenetan gastua ez handitzea**.
- Arabako Foru Aldundiko sailen laguntzarik edo dirulaguntzarik ez jasotzea. Proiektuak beste administrazio batzuen laguntza edo dirulaguntzaren bat jasotzen badu, jasotako zenbatekoen baturak ezin izango du gastuaren % 100 gainditu.
- Arabako Foru Aldundiak eta bere foru sektore publikoak **mantentzeko beharrik ez izatea gerora**.
- Epe ertainean edo luzean egingo diren era askotako aldaketen aurrean **Arabak erantzuteko eta egokitzeko duen gaitasuna areagotzea** proposamenek.
- Ekimena kokatzen den udalean aurrekontu parte-hartzaileen beste prozesu batzuk egonez gero, proposamenak ez du udalen eskumenekoa soilik izan behar.

## c) Proposamenak aurkezteko bideak

Herritarren proposamenak jasotzeko aldi bat izango da. Inprimakiak aurkeztu beharko dira eta horiek aurkezteko bi bide izango dira:

### 1) Bide elektronikoa:

Online inprimaki bat beteko da **araba.irekia.eus webgunearen** “Parte-hartzea” atalean edo **AFaren egoitza elektronikoan**. Bide hori erabili behar dute, nahitaez, pertsona juridikoek eta Administrazioarekiko harremanak elektronikoki izatera



behartuta daudenek, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua xedatutakoarekin.

Identifikazio sistema baten bidez erregistratu beharko da, honako eremu hauek betez:

**ESKATZAILEA:**

Izena eta abizenak  
NAN/AIZ /IFZ zenbakia  
Jakinarazpena egiteko helbidea  
Telefonoa  
Posta elektronikoa  
Jaioteguna  
Erroldatze lekua  
Sexua

**PROIEKTUA:**

Izenburua  
Helburua  
Deskribapena  
Aurrekontua (ez da nahitaezkoa)  
Kuadrilla (6 posibleen artean zehaztu behar da)

**ERANSKINA:**

Dokumentazio osagarria (ez da nahitaezkoa)

**2) Bide presentziala:**

Horretarako prestatutako inprimakia bete eta **Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorreko Bulegoan** (Gasteiz edo Laudio) aurkeztuko da, edo **Arabako Lurralde Historikoko edozein udaletako sarrera erregistroan**, honako informazio honekin:

**ESKATZAILEA:**

Izena eta abizenak  
NAN/AIZ/IFZ zenbakia  
Jakinarazpena egiteko helbidea



Telefonoa:

Posta elektronikoa (ez da nahitaezkoa)

Jaioteguna

Erroldatze lekua

Sexua

**PROIEKTUA:**

Izenburua

Helburua

Deskribapena:

Aurrekontua (ez da nahitaezkoa)

Kuadrilla (6 posibleen artean zehaztu behar da)

**ERANSKINA:**

Dokumentazio osagarria (ez da nahitaezkoa)

**Ez da beharrezkoa deskribapen tekniko konplexua egitea;** proposamena modu xumean deskriba daiteke.

Ezin da eskaera bakar bat aurkeztu eta hartan, dokumentu bakarrean, hainbat proposamen erantsi.





### 3.3.- 3. FASEA: HERRITARREN PROPOSAMENEN AZTERKETA

#### a) Proposamenak egiaztatzea eta iragaztea

Arabako aurrekontu parte-hartzaileen proposamenak aurkezteko ezarritako epean aurkeztutako proposamen guztiak bildu ondoren, Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak aurkeztutako proposamenak egiaztatzeko eta iragazteko ardura izango du, **3.2 puntuko “a” atalean definitutako BALDINTZETAN** definitutako ezaugarriei jarraikiz.

Proposamenetan behar bezala argitu ez diren alderdiak egonez gero, Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza proposamengileekin harremanetan jarri ahal izango da, jakinarazpen datuen bidez, dagokion informazioa biltzeko.

Ondoren, foru teknikariek baldintzak betetzen diren aztertuko dute, eta, azkenean, Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak proposamen guztien zerrenda egingo du — 3.2 puntuko “a” atalean zehaztutako BALDINTZAK bete dituzten foru sailen arabera sailkatuta—. Zerrenda horrek aukera daitezkeen proiektuen zerrenda osatuko du, **eta Gobernu Irekiaren Atariaren webgunean argitaratuko da ([araba.irekia.eus](http://araba.irekia.eus))**.

#### b) Aukera daitezkeen proiektuen zerrenda egitea.

Egiaztapen teknikoaren izapidea gainditu duten proposamenen zerrenda dagokion arloan eskumenak dituzten foru sailalara bideratuko da, bildutako herritarren proposamen bakoitzaren balorazio teknikoa/ekonomikoa egin dadin, eta, horrela, proiektuen hautagarritasuna zehaztuko da.

Kuadrillari esleitutako zenbatekoa baino aurrekontu handiagoak dituzten proiektuen kasuan, azkenean hautagarria izan dadin, azken zenbatekoa kuadrilla horren aurrekontu parte-hartzaileei dagokien aurrekontu-partidara egokitu beharko da.

Bozketa operatiboa egitea ahalbidetzen duen proposamen kopuru bat jasotzen duen zerrenda bat prestatze aldera, azken zerrenda egiteko, beste irizpide batzuk ere izango dira kontuan, interes orokorraren arabera, lurraldearen estrategiarekin eta aukera-irizpideekin bat etorriz. Azterketa hori egiteko, proposamenen edukia bakarrik hartuko da kontuan, eta ez da inolaz ere baloratuko eduki horri lotutako hainbat proposamen jaso izana.



Azterketa horren emaitzaren arabera, proiektu hautagarrien zerrenda zehaztuko da, eta herritarren bozketaren **ondorengo fasera igaroko dira horiek** (antzeko edukia duten proposamenak proiektu bakar batean bildu ahal izango dira bozketarako).

**c) Hautatze irizpideak:**

- Bere garaian indarrean zegoen Arabako Foru Aldundiaren plan estrategikoan ezarritako helburuekin bat etortzea.
- Lurraldearen estrategiarekin eta aukera irizpideekin bat etortzea.
- Kuadrilla bakoitzerako ezarritako zenbatekoa kontuan hartzea; aurreikusitako gastu partidari dagokio, 6 zenbateko berdinetan zatitua.

**d) Aukera daitezkeen proiektuak argitaratzea**

Aukera daitezkeen proiektuen zerrenda Gobernu Irekiaren Atariaren ([araba.irekia.eus](http://araba.irekia.eus)) webgunean argitaratuko da, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren foru aginduan urtero zehazten den egunean; bertan zehaztuko da prozesu parte-hartzaile bakoitzari dagokion egutegia.

### **3.4.- 4. FASEA: PROPOSAMENAK HAUTATZEA. HERRITARREN BOZKETA**

Aukera daitezkeen proiektuen zerrenda argitaratu ondoren, herritarrek bozketa egin dezaten, bozketa egiteko epea irekiko da.

**a) Proposamen bakoitzaren publikotasuna:**

Proposamen bakoitzari buruzko informazio hau argitaratuko da:

- 1) Jarduketa zein kuadrillatan gauzatuko litzatekeen
- 2) Izenburua
- 3) Deskribapena/Xedea
- 4) Aurrekontu zenbatetsia (eskuragai balego)
- 5) Proposamena egin duen pertsonaren edo erakundearen datu orokorrak (erroldatze lekua eta generoa, baina identifikazio pertsonalik gabe)

Era berean, proposamena egin duen pertsonaren edo erakundearen lankidetzat eskatu ahal izango da, proposamena ahalik eta gehien zabaltzeko.



**b) Herritarren bozketan parte hartzeko baldintzak:**

Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikoek eman ahal izango dute botoa:

- 16 urte edo gehiago izatea eta
- Arabako Lurralde Historikoko kuadrilletako udalerriren batean erroldatuta egotea (Gasteizen izan ezik).

**c) Bozketak egitea**

Prozesu parte-hartzaile horretan botoa emateko eskubidea erabiltzerakoan, botoa ematen duenak nahitaez eman beharko ditu Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta dagoela egiaztatzeko behar diren datuak.

Bozketan parte hartzen dutenek, **erroldatze lekuaren arabera**, beren kuadrillarako hautatutako **proiektu bat** aukeratu beharko dute. Pertsona bakoitzak (parte hartzeko aukeratutako bidea edozein dela ere) behin bakarrik parte hartu ahal izango du.

Herri bozketarako aldi bat izango da. Bozkatzeko inprimakiak aurkeztu beharko dira eta horiek aurkezteko bi bide izango dira:

1) Bide elektronikoa:

Online inprimaki bat beteko da [araba.irekia.eus](http://araba.irekia.eus) webgunearen “Parte-hartzea” atalean edo AFaren egoitza elektronikoan.

Identifikazio sistema baten bidez erregistratu beharko da, honako eremu hauek betez:

**ESKATZAILEA:**

Izena eta abizenak

NAN/AIZ

Jakinarazpena egiteko helbidea

Telefonoa:

Posta elektronikoa

Jaioteguna

Erroldatze lekua

Sexua



**AUKERATUTAKO PROIEKTUA/K:**

**Izenburua**

**Kuadrilla (6 posibleen artean zehaztu behar da)**

**Aukeratutako proiektua**

2) Bide presentziala:

Horretarako prestatutako inprimakia bete eta Arabako Lurralde Historikoko edozein udaletako sarrera erregistroaren bidez edo Gasteizko edo Laudioko Erregistro Orokorreko Bulegoan aurkeztuko da, honako informazio honekin:

**ESKATZAILEA:**

Izena eta abizenak

NAN/AIZ

Jakinarazpena egiteko helbidea

Telefonoa:

Posta elektronikoa (ez da nahitaezkoa)

Jaioteguna

Erroldatze lekua

Sexua

**AUKERATUTAKO PROIEKTUA/K:**

Izenburua

Kuadrilla (6 posibleen artean zehaztu behar da)

Aukeratutako proiektua

BOZKETA BAKARRA bidali beharko da (bi aurkezpen bideak barne). Bi bozketak proiektu berarenak badira, boto bakarra onartuko da, eta, aldiz, proiektu desberdinenak badira, bi bozketak baliogabetu egingo dira.

Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzak, NISAEn datuen bidez, egiaztatuko du botoa eman duten pertsonak benetan erroldatuta daudela aukeratutako proposamena egiteko eskatzen duten kuadrillan.



### 3.5. 5. FASEA: BOZKETAREN AZKEN EMAITZAK ETA JARRAIPENA

#### a) Bozketaren azken emaitzak

Arabako Foru Aldundiak, bozketa aldia amaitutakoan, proiekturik bozkatueneren zerrenda prestatu eta argitaratu egingo du, horietako bakoitzak jaso dituen botoen kopuruari jarraituz (boto kopuru handienetik txikienera).

Horrela, kuadrilla bakoitzeko proiektuak aukeratuko dira, zerrenda hori kontuan hartuta, harik eta kuadrilla bakoitzari esleitutako aurrekontu parte-hartzaileetara bideratutako gehieneko kopurua ahalik eta modu doituenean bete arte. Kuadrilla bakoitzak hautatutako azken proiektuen aurrekontuen baturak ezin izango du esleitutako partida gainditu. Beraz, hautatutako proiektuen kopurua zehaztugabea izango da a priori.

Kuadrilla bakoitzean boto gehien jasotzen duten proiektuak Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzaren ardura duen sailari esleitutako aurrekontu lerroan erreserbatutako gastu partidaren kontura gauzatuko dira, eta **prozesu parte-hartzailearen azken proiektuen zerrenda** osatuko da.

#### b) Gutxienerako quoruma

Herritarren babeserako gutxienerako quorum bat ezarriko da proposamen bakoitzerako (Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren foru aginduan ezarritakoa), azken proiektutzat har daitezten. Aurrekontu parte-hartzaileetarako beste kopururik adierazten ez bada, ezarritako gutxienerako quoruma dagokion **kuadrillan erroldatutako 20 urtetik gorako biztanleriaren % 2** da, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak osatzen dituzten udalerriei dagokienez EUSTATEk dituen datuetan oinarrituta.

**Prozesu parte-hartzailearen azken proiektuak** hautatu ostean, proiektua gauzatzeko dagokion zenbatekoa proposamen bakoitza egiteko eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailari transferituko zaio, dagokion aurrekontu aldaketa egin ondoren.

#### c) Jarraipena

Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza arduratuko da azken proiektuen gauzatzearen jarraipena egiteaz eta haiek ebaluatzeaz eta justifikatzeaz, prozesua ibilbide zirkularra izan dadin, eta, bertan, herritarrek, proiektuaren subjektu nagusi gisa, Arabako partaidetza bidezko aurrekontu horiei buruzko informazio xehatua izan dezaten beti.



d) Gauzatzeko gerora sortutako ezintasuna

Aurrekontuan sartuta dauden proposamenak gauzatu aurretik, gainerako aurrekontu partidekin gertatzen den bezala, kontrol eta azterketa gehigarri guztiak egingo dira.

Aurrekontuaren proiektuan sartu aurretik aldez aurreko azterketa egin bada ere, azken izapidean azterketa gehigarriak burutu daitezke, eta horiek, aurrez detektatu gabeko oztopoak aurkitu, eta proiektu jakin batzuk egitea guztiz edo zati batean eragotzi dezakete.

Hala balitz, informazio hori Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Atarian ([araba.irekia.eus](http://araba.irekia.eus)) argitaratuko da.



### 3.6. 6. FASEA: HERRITARREI ITZULTZEKO PROZESUA

Arabako Foru Aldundiak prozesu parte-hartzaile horren faseren batean (proiektuen proposamena) parte hartu duten pertsona/erakunde guztiei itzultzeko prozesu bat gauzatuko du, Arabako partaidetza bidezko aurrekontuen trazabilitatea bermatuko duen itzulera bat gauzatzeko eta gardentasunaren eremuan prozesuaren bermearen aldeko apustua egiteko.

Aurrekontu parte-hartzaileei buruzko informazio guztia Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Atariaren ([araba.irekia.eus](http://araba.irekia.eus)) webgunean egongo da eskuragarri.

### 3.7. 7. FASEA: EBALUAZIOA ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Zikloari amaiera emateko, prozesuaren ebaluazioa egingo da, eta ekintza zuzentzaileak eta hobetzeko proposamenak identifikatuko dira, hurrengo edizioetan ezartzeari begira.

Emaitzak **amaierako memoria** batean jasoko dira, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Atarian ([araba.irekia.eus](http://araba.irekia.eus)) argitaratuko da.



## 1. ERANSKINA

### Proposamen aritmetikoa:

<b>(1)</b>	<b>Diru sarreren guztizko aurrekontua</b>
	<b>Era berean, gaitasun propioari eragiten ez dioten gastuak kentzen dira.</b>  Konpromiso instituzionalak (EJ + Estatua) TEFFF Foru plana Foru plana - zuzkidura osagarria Obra txikiak egiteko laguntzak Auzoko harremanak Part. Udal. Itundu gabeko zergak Batzar Nagusietarako zuzkidura Instituten transferentziak Zorpetzearen finantza karga Eraginpeko finantzaketa duten gastuak AFAREN 1. kapitulua Gizarte zerbitzuen zorroa
<b>(2)</b>	<b>Gastu ez-propioak, guztira</b>
<b>(3)=(1)-(2)</b>	<b>Aurrekontu propioa</b>
	<b>eta aurrekontu propioari honako hau aplikatzen zaio:</b>
<b>(4)=% 0,45*(3)</b>	<b>Aurrekontu parte-hartzaileen funtsa</b>